

## VIII-Baliabideak:

Gure enpresak hainbat baliabide ukigarri ditu. Horien barruan baliabide fisikoak, Danelen aititeren lokala, biltegi eta bulego moduan erabiliko duguna, sistema informatikoak: ordenagailuak eta telefono finkoak baita aititeren lokalean ezarrita, eskariak jaso ahal izateko eta dronak, gure zerbitzua eskaintzeko egongo dira ez ditugulako beste enpresa batzuen moduan fisikoki errepertidoreak. Kasu honetan gure dronen ezaugarrietako bat externalizazioa izango da.

Izan ere, beste enpresa batekin aliantza bat sortu ondoren, dronak kanpoko enpresa horrek garatu eta konponduko ditu.

Bestalde baliabide ukiezinak ere izango ditugu eta haien barruan, gure bezeroei buruzko beharrezko datuak egongo dira adibidez, garraioa eta gure zerbitzua ahal bidetzen duen helbidea eta telefono zenbaki bat edota korreo helbide bat arazoren bat balego konpondu ahal izateko. Hortaz aparte, giza baliabideak ere izango ditugu, hala nola, gure merkatu, finantza, teknologia eta garraio ezagutzak edo inguruko jatetxe batzuekin dugun harremana. Finantza baliabideak izateko, hasieran kreditu-txiki bat eskatu behar izango dugu dronen erosketa egin ahal izateko baina 1-2 urteko epean pentsatuta dugu dirua errekuaratzea.